



2017KO IRAILAREN 26KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko irailaren hogeita seian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakariitzepean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jaber Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barrantiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Ioseba Hernandez Madinabeitia zinegotzia ez da bertaratu eta ez du ohartarazi bere ezin etorria.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2017ko ekainaren 27an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- ARAU SUBSIDIARIOEN LEHEN ALDAKETAREN BEHIN BEHINEKO ONARPENA.-

2017ko apirilaren 25eko Osoko Bilkuraren akordioz, indarrean dauden Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Lehen Aldaketa Puntuala hasierako izaeraz onartu zen. Aldaketa hau, nekazaritza ustiakuntzei buruz 3.5.2 artikuluan xedatutakoari, lurzorua hirigintza erabilere buruz 1.1.2 artikuluan xedatutakoari, eta 2 H.J.A.-Ibabe-Pingon-eko hirigintzako arautegi partikularrean xedatutakoari buruzkoa da, eta Pedro Izaskun eta Miguel A. Irazabalbeitia arkitektoek eta Jon Orue-Etxebarria Iturri abokatuak idatzitakoa.

Dokumentua jendaurrean erakusgai egon da hilabeteko epean, dagozkion iragarkiak 2017ko maiatzaren 4ko 84 zbk.dun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta maiatzaren 9ko El Diario Vasco eta Berria egunkarietan argitaratuz. Halaber iragarkia udaletxeko iragarki oholean erakusgai egon da. Epe horretan ez da inongo alegaziorik aurkeztu.

Era berean, aipatu dokumentua eskuduntza sektorialak dituzten herri administrazioei jakinarazi zaie, beraien ezaguera eta txostena egite ondorioetarako. Gipuzkoako Foru

Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentutik eta Eusko Jaurlaritzako Ur Agentziatik jasotako txostenetatik ez da dokumentuan aldaketak egitearen beharrik ondorioztatzen.

Dokumentua hirigintzako batzorde informatzaileak informatua izan da.

Guzti honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin eta beraz legezko gehiengo osoaren aldeko botoekin, honako akordio hauek hartzen ditu:

- 1.- Arau Subsidiarioetako lehen aldaketa puntual honi behin-behineko onarpena ematea.
- 2.- Dokumentua Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamenduko Batzordera igortzea.

IV.- KATALUNIAR HERRIAN IZANGO DEN GALDEKETAREN INGURUKO ADIERAZPENA.-

Lazkaoko Udalaren bi talde politikoak, EAJ-PNV eta EH BILDU, Catalanian bizitzen ari diren egoeraren aurrean, ondorengo adierazpen instituzionala adostu dute:

"1.- Lazkaoko Udalak kezka adierazi eta baztertu egiten du egitateen bidez Kataluniako autonomian esku hartzeagatik, eta Estatuko segurtasun indar eta kidegoek egindako operazio polizialagatik, zeinaren bidez erregistroak eta abxiloketak egin baitiren Generalitateko instalazioetan bere arduradun legitimoei.

2.- Lazkaoko Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio bertan behera utz dezala oinarritzko eta funtsezko askatasunen errepresio-estrategia, demokrazioaren oinarritzko printzipioen aurkakoa.

3.- Lazkaoko Udalak berretsi egiten du funtsezko printzipio demokratiko guztiekiko konpromisoa, eta elkartasuna adierazten die Catalunya-ko herriari, eta baita demokraziaren aurkako errepresio politikoa - Espainiako Gobernuak gidatutakoa- pairatzen diharduten pertsona eta erakunde guztiei.

4.- Lazkaoko Udalak dei egiten du Kataluniako herriaren asmo demokratikoaren adierazpena ahalbideratzea eta erabakiak errespetatzera."

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

